

@@@EDIKTUA, 2011ko irailaren 23koa, Laneko zuzendariarena, 11.0180.01.02.01.02  
espedientearen gainean hartutako ebazpena XXXXXXXXXXXX enpresari jakinarazteko  
dena.@@@

Nik, Katrin Begoña Iturrate Zamarridak, Laneko zuzendaria naizenak, hau jakinarazten dut:

XXXXXXXXXXXX enpresari –I2010000045383 arau-haustearen akta dela-eta– irekitako  
11.0180.01.02.01.02 errekurtsioa amaitu da; eta ebazpena eman da, XXXXXXXXXXXX jaunak  
aurkeztutako gora jotzeko errekurtsioa ezesteko. Beraz, berretsi egiten da Enplegu eta  
Gizarte Gaietako Sailaren Arabako Lurralde Ordezkaritzaren 2011ko martxoaren 1eko  
Ebazpena –01/2011/26 zehapen espedientearen emandakoa–, zeinen bidez, aipatu enpresari  
bi mila eta berrogeita sei (2.046) euroko zehapena ezartzen baitzaio, hain zuzen ere,  
abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Lan-arloko Arau-hauste  
eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateginaren 12.15 a) artikuluan larrizat jotako arau-  
hauste bat egiteagatik.

Ahaleginak egin diren arren, ezin izan zaio ebazpena jakinarazi enpresa erantzuleari, jasota  
geneukan azken helbidean (XXXXXXXXXXXX kalea, 15, 01001 XXXXXXXXXXXX). Beraz,  
jakinarazpena egiten zaio, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio  
Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 59.4. artikuluan agindutako moduan,  
eta ohartarazten zaio ebazpen horrek amaiera ematen diola administrazio-bideari eta,  
beraren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezakeela, bi hilabeteko epean,  
jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera.

Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkeztu zein ez, XXXXXXXXXXXX enpresak  
zehapena ordaindu beharko du, Eusko Jaurlaritzaren ordainketa-pasabidearen bitartez,  
interneteko helbide honetan: <http://www.euskadi.net/mipago>. Ordainketa egiteko azken  
eguna 2011-11-07a da, eta ordainketa egiteko behar diren datuak, honako hauek:

- Diru-bilketako prozeduraren kodea (DPK): 9050794.

- Erakunde jaulkitzailea: 04833001-522.

- Erreferentzia: 0111002600246.

- Identifikazioa: 071111.

- Zenbatekoa: 2.046 euro.

Enpresak zehapena ordaintzen ez badu, premiamendu-bideari ekiteko administrazio-egintza  
hasiko da zehapena kobratzeko. Hori dela-eta, premiamendu-errekargua eta berandutze-  
interesak ordaindu beharko ditu enpresak, 212/1998 Dekretuan ezarritako prozedura  
aplikatuz (212/1998 Dekretua, abuztuaren 31koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun  
Nagusiaren Dirubilketarako Erregelamendua onartzeari buruzkoa).

Enpresarentzat jakinarazpen-ondorioak izan ditzan argitaratzen da ediktu hau, Herri  
Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren  
26ko 30/1992 Legearen 59.4 artikuluan xedatutako moduan.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko irailaren 23a.

Laneko zuzendaria,  
KATRIN BEGOÑA ITURRATE ZAMARRIPAK.